



BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

KONTRATUAREN XEDEA: HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HAURRESKOLAK TERMOEZ HORNITZEKO ENPRESA BATEN KONTRATAZIOA.

ESPEDIENTEA: 005/18

KONTRATATUTAKO ZERBITZUAK.

Kontratu honen bidez termoak hornitu nahi dira haurreskolara haurreskolan bertan bazkaltzeko etxean egindako janaria ekartzen duten haurren beharrei erantzuna emateko, eta horrela ere haurreskoletako instalazioetan jakin horien egoera ona ziurtatu ahal izateko.

Behar horiei erantzuteko kontratu honen xede diren termoak haurreskola bakoitzari banatuko zaizkio ikasturtean zehar bakoitzean sortzen diren beharrei erantzuna emanez. Horretarako haurreskolara haurreskolan bertan bazkaltzeko etxean egindako janaria ekartzen duen haur bakoitzari termo bat emango zaio.

Banatu beharreko termoen eskaerak Haurreskolak Partzuergoko egoitzan dagoen Prebentzio Zerbitzutik bideratuko dira, eta termoak banatuko dira eskaera bakoitzean zehazten diren Haurreskolak Partzuergoko haurreskoletan.

Termoen banaketa haurreskola bakoitzean egin beharko da, eta hori Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuak eskaera egin eta gehienez ere 14 egunetako epean egin beharko da.

Jarraian, termoek bete beharreko ezaugarri teknikoak zehazten dira:

- 2004ko urriaren 27ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (CE) 1935/2004 zenbakia duen Araudia bete behar da. Hau elikagaiekin kontaktuan jartzeko material eta objektuena da, eta honen bitartez 80/590/CEE eta 89/109/CEE Zuzentarauak indargabetzen dira.
- 2005eko abenduaren 14ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (CE) 2005/84/CE zenbakia duen Zuzentaruak bete behar da. Honen bitartez Kontseiluari

dagokion 76/769/CEE Zuzentaraua hogeitabigarren aldiz moldatzen da, Kide diren Estaturen arauzkoak eta administratiboak diren lege-xedapenei gerturatzeari dagokiona, eta zeinaren bitartez arriskutsuak diren zenbait sustantzia eta prestakinen komertzializazioa mugatzen den (ftalatoak jostailuetan eta puerikulturako artikuluetan).

- 2009ko ekainaren 22ko batzordearen 552/2009 zenbakia duen Erregelamendua bete behar da. Honen bitartez Europar Parlamentuaren 1907/2006 zenbakia duen Erregelamendua moldatzen da, gertakin kimikoak erregistratu, ebaluatu, baimendu eta mugatzeari buruzkoa dena (REACH), honi dagokion XVII eranskinean.
- Horietaz gain, agintean dauden eta aplikagarriak zaizkion beste araudiak ere bete beharko dituzte.
- Termoek bi ontzi edo konpartimendu hermetiko, edo gehiago, eduki beharko dituzte lehenengo eta bigarren platera eraman ahal izateko. Elikagai likido zein solidoak garraiatzeko egokituak egon beharko dira.
- Barruko ontziak edukitezotan horiek mikrouhinean erabili ahal izango dira.
- Gutxieneko edukiera edo kapazitatea 600 CC.-koa izan beharko da.
- Tenperatura denboran mantentzeko gaitasun edo ahalmen handia eduki beharko du, eta horretarako aspektu hori ziurtatzen duen tenperaturen ikerketa edo azterketa aurkeztu beharko da. Ikerketak gehienez hiru hilabeteko antzintasuna edukiko du, eta horretarako erreferentziazko data gisa kontuan hartuko da prozedura ireki honen iragarkia Kontratatailearen Profilean argitaratu deneko data.
- Gutxienez elikagaiak 5 orduz mantendu beharko dira bero haurreskolatan horien mantenu egoki bat ziurtatu ahal izateko. Horretarako kontuan hartuko dira "elikagaien tenperaturaren arrisku zona" bezala zehaztutako tenperaturak.
- Garraiatzeko errazak izan beharko dute.
- Haurreskolak Partzuergoak luzatutako logotipoa eta erabiltzailearentzako identifikadorea eduki beharko dute.
- Termo beratik banandu daitezkeen eta arriskutsuak diren elementuak ezingo ditu eduki.